# TXORIJA KAYOLAN

Goiz atan itxi eban lenengoz abija.

Egaizkada labuŕ-zakaŕtxu bat eginda, bere abija dingilizka eguan zugatz-adaŕ baten jaŕi zan.

Amea eltxuak aŕapatzen uŕtenda ikusten eban an, uŕun, mendijak eta ortziak alkaŕ mosu emoten daben lekuban.

Bera ixan zan anditxuba. Aŕezkero lumatuta be ba-eguan. Lasteŕ jakingo eban bere buruba alikatuteko janarija biĺatzen... ¡Eta orduban berak bai egaizkadeak!

Loraz estalduriko lats-ertzeraño jatsiĺa, ur garden -garbijan saŕtu ta igeri, ta gero lumatxubak aŕotu eguzkiĺan. Zugatz-buru-ganera baŕiro igon eta andik mendijak baño arago egaiz.

¡A! ¡Eguak lumatuta eukiĺiak emoten daun azkatasun edeŕa! ¡Beria da bixija, abijen estutasuna itxiĺa! Oŕetara oldoztuten eguala, pozez txioka asi zan.

Bat-batez bere atzian zaratia susmau eban. Arantza begiratu ta une atan ixugaŕizko esku batek aŕapauta,gora jaso eban txori gaxuori.

Esku arek berarizko toki baten saŕtu eban txorija, Iluntxu egon zan, baña bai epela ta biguna be. Mutiĺen kolkuan eguan.

*Luzarotxu egon zan an, geldi-geldirik, arnasea* aŕtzeko be bilduŕ zala.

Gaxuari betikotasuna iruditzen yakon astija.

Azkenez, aŕapau eban eskutzaŕ berberak kolkotik atarata. Burdiñari lodidun espetxe b a t e n auŕian imiñi eban. Atia zabaldu, eskuto arek txori gaxuari baŕurantz eragin eta bere atzian atia itxi zan.

An bai eukazan janarija ta ura. ¡Baña zelako janarija! Etxakon berari bape atsegin. Eta atsegin ixanda be ukuturik be ezeutson egingo.

¡Aren iĺuna! Laŕi eguan espetxe atan. Loruak zatiĺu ta andik iges egiĺeko egiĺen ebazan alegin gustijak alpeŕikuak ixan ziran. ¡Ezin, ezin ausi! ¡Betiko galdu eban azkatasuna! ¡Aguŕ betiko bere gurarijak soŕtu euzan amets zoragaŕijak!

Ezeban iñoz ortze-ziaŕ egaz egingo, ezta loraz inguraturiko eŕekatik urik edango be.

Betiko espetxalduba... ¡Iltia al ba'litz! ¡Bixitz a baño gurago eban erijotzea!

Berak ondo ezaguturiko txio bat entzunda, buruba bixiro jaso eban, ¡ta an bere ama maĺia!

Berarentzako mokua janariz betia ebala, abira biguŕtu zan, baña ezeban umia idoro. Tamalez beterik, asi zan umia biĺatzen, eta jopu bat eginda espetxeratuba auŕkiĺu eban.

Euren mokuak alkaŕtuta, amak laztandu eban eta baŕiro juan zan egazka.

Lasteŕ biguŕtu zan ostera be ta umiari mosu egiĺen duala, pikuen baŕuban janari bakana saŕtu eutson. Beste batzutan lez, etzan a eltxua ixan, bedaŕ baten azija baño.

Juan zan ama ta txori gaxua kayolako sotz baten ganian, sedazko kirikiñotxu baten antzez luma gustijak aŕotuta lotu zan.

Bijaramonian, txorija aŕapau eban mutiĺak bera ikusten juan zanian, idoro eban kayolako loruan, bere ankatxu gogoŕtubaz gora, begijak itxiĺa ta pikotxuba erdi zabalik...

Ilda eguan.

¿Tamalez il zan?

Ez. maĺe-maĺerik eban amak ziĺala emon eutson. Gurago eban semia iltia, jopuba ikustia baño.

UTAŔSUS.

---

Emblemas del escudo de la villa, que presidían la famosa Plaza Mayor (hoy Plaza Vieja), a la que fueron arrojados desde la torre de Zubialdea (esquina a Artekale), el cadáver de Don Juan de Abendaño, el 26 de Julio de 1356, asesinado mientras comía con Pedro Ruiz de Lezama, por los satélites de Don Tello, consultor del Señor de Bizkaya, y pocos años más tarde el del Infante Don Juan de Aragón, muerto a porrazos en la antecámara, por mandato del monarca castellano Don Pedro el Cruel, que tuvo el cinismo de asomarse a la ventana, y dirigiéndose en son de burla, al pueblo bizkaino, apiñado en la plaza, decirle con altanero desafío:

*"¡Cantad ahí al vuestro Señor que vos demandaba!"*

También en esta Plaza Mayor, hacia el año 1417, un alcalde maketo, llamado Alfonso Fernández de León, tuvo la osadía de ejercer personalmente de borrero, cortando en la picota las cabezas de Sancho López de Markina y Otxoa de Landaburu...

"Allí, en la Plaza Mayor, junto a la Iglesia de San Antón, —como nos recuerda el insigne Enrique de Orueta, *en su precioso trabajo* "El Estanco de la Sal"— se levantó el cadalso al que subieron para dar su alma a Dios, Juan de Laŕabazter y los hermanos Bizkaigana".

El mismo día, a la caída de la tarde, fueron ajusticiados en la cárcel, Ajorabide, Morga y Puente Urtusaustegi; todos ellos caballeros bizkainos, acusados de alzarse foralmente contra el llamado Estanco de la Sal, que pretendió establecer Felipe III, a la sazón Señor de Bizkaya.

¡Bilbao de mis amores! ¡No eres, lo que fuiste!...

URDIOLA.